



DESFIBRILADORE BERSINKRONIZATZAILEA INPLANTATZEARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

Zertan datza prozedura?

Lepauztaiaren azpian ebaki txiki bat egin ondoren, gailu bat jarriko dizute larruazalaren azpian, elektrodo batzuei lotuta. Elektrodo horiek zure bihotza estimulatuko dute, aldi berean, bentríkulu bietan eta, batzuetan, eskuineko aurikulan. Batzuetan, aparatuak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatu behar da, pazienteak izan ditzakeen arritmien antzekoak eraginez eta desagerraraziz.

Ezkerreko bentríkuluaren kablea bihotzaren zainen bidez jartzen da. Pertsona bakoitzarengan zainek forma desberdinak dituzte eta kable bidez zeharkatzeko zailtasuna aldatu egiten da paziente bakoitzarengan.

Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da BARAURIK egotea proba egin baino 6 ordu lehenagotik gutxienez.

Gosariko ohiko botikak ur pixka batez har ditzakezu.

Medikazio antikoagulatzailea hartzen baduzu (Sintrom®, warfarina, dabigatran, apixaban, erribaroxaban edo edoxaban), medikazio hori nola eman berariaz adieraziko dizute.

Diabetikoa bazara:

- Aurreko gauean ohikoa den intsulina-dosia hartu.
- Ez duzu diabetesaren aurkako pastillarik hartuko gosarian.
- Prozeduraren aurretiko INTSULINA AZKARRA ez hartu.
- Goizean intsulina basala hartzen baduzu (Levemir®, degludek, glargina...), hartu ohiko dosia PROZEDURAREN ONDOREN.

Hortzordea baduzu, harrera-solairuan ospitaleratzean kendu beharko duzu.

Non egingo didate inplantea?

5. solairuan, AUO Txagorritxuko D eremuan.



Nola egingo didate prozedura?

Prozedura anestesia lokala erabiliz egiten da.

Ospitaleratze-unitatean hartuko zaituen erizainak zain-bide bat jarriko dizu ezkerreko besoan, adierazitako profilaxi antibiotikoa eta prozeduran zehar behar izan dezakezun beste edozein botika emateko, bai eta iododun kontrastea emateko ere, beharrezkoa bada; elektrodoak aurrera egiteko erabiliko den zain-zitada axilarra/subklabioa/zefalikoa gidatzeko.

Ohatilan etzango zaituzte harrera-gelan emango zizuten ohe-atorra jantzita, eta beharrezkoa denean soilik biluztuko duzu zure gorputza. Prozedura osoan zure bihotzaren jardueraren erregistroa ikusteko elektrodoak jarriko dizkizute, baita tentsio arteriala hartzeko mahukatxo bat eta atzamarrean saturimetro bat ere.

Ondoren, oihal kirurgiko bat jarriko dizute zure gorputza estaltzeko, eta inplante-gunea soilik agerian utziko dizute. Bertan, anestesia lokala jarriko dizute zitada egingo den eremuan, prozedura mingarria izan ez dadin.

Ebakuntzaren iraupena oso aldakorra da, ordubete eta hiru ordu bitartekoa izan ohi da.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Ospitaleratuta egongo zara hurrengo 24 orduetan.

Ezingo duzu jan proba egin eta 2 ordu igaro arte.

Inplantearen 24 orduak igarota, kontrol-erradiografia bat egingo dizute, konplikaziorik egon ez dadin.